



LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAREN (LDEA) TXOSTENA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN EREMUAN POSTA-ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA ERAENDU BEHAR DUTEN OINARRI TEKNIKOAK BATERAGARRIAK DIREN LEHIAREN DEFENTSARI BURUZKO UZTAILAREN 3ko 15/2007 LEGEAREKIN

Esptea.: I-1/2011

Osoko bilkura

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakaria

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, lehendakariordea

María Pilar Canedo Arriaga andrea, kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2011ko otsailaren 24an.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta Joseba Andoni Bikandi Arana jauna txostengile dela, txosten hau egin du, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko Lege Garapen eta Arau Kontrolerako zuzendariak eskatuta.

I.-TXOSTENAREN XEDEA

1. 2011ko otsailaren 9an, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Araubide Juridikoaren Sailburuordetzako Lege Garapen eta Arau Kontrolerako zuzendariak aurkeztutako idazkia sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegian (aurrerantzean LDEA). Idazki horretan adierazi zen Justizia eta Herri Administrazio Saileko Baliabide Materialen Zuzendaritzak eskatuta, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak txosten juridikoa egin duela Herri Administrazioak kontratatutako operadoreen bitartez (posta-zerbitzu unibertsala emateaz arduratzen den operadorea ez direnak) egindako administrazio-jakinazpenen jardunbideari buruz. Txosten juridiko horretan adierazi zen lehiaren defentsarako arau eta printzipioak zuzenean daudela eraginda Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak egin nahi duen kontratazioan. Hori dela eta, adierazi den administrazio-organoak txostena egiteko eskatu dio LDEAri.



2. Honako agiri hauek erantsi zaizkio txostenaren eskaerari:

- Administrazio- eta epai-organoen jakinarazpenen jardunbideari buruzko txostena, Posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko abenduaren 30eko 43/2010 Legea indarrean sartu ondoren, Javier Resano Aguirre abokatuak eginda.

3. Txosten horretan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eremuan posta-zerbitzuak emateko kontratua eraendu behar duen preskripzio teknikoen agiria aztertzen da (Espedientea: KM/2011/02), *Posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko abenduaren 30eko 43/2010 Legean eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa kontuan hartuta.*

4. Honakoa ondorioztatu zen txosten horretan:

“[...] legezketasun zorrotzaren ikuspegitik [...], gure ustez, adierazi den eskakizun edo konpromisoak gaintitu egiten du aipatutako legeaurreikuspena. Izan ere, Legeak posta-operadore unibertsalak egindako jakinarazpenei egiazketasun eta froga presuntzioa ematen dien arren, Legea bera da jakinarazpen horiek beste posta-operadore batzuek ere berdin egin ditzaketela aitortzen duena, nahiz eta kasu horietan, presuntzio hori ez daukatenez, “zuzenbide erkidearen arauen” bitartez egiaztatu behar diren.

Orain arte azaldutakoa kontuan hartuta, gure ustez egokiena izango litzateke preskripzio teknikoen agiriak aukera ematea jokoan dauden interes publiko biak bateragarri egiteko, hau da, lehia askearen errespetua eta administrazio-jardueraren eraginkortasuna. Horretarako, gure ustez, alde batetik, 4.2 puntuan aurreikusitako konpromisoa kendu beharko litzateke, eta aukera eman lizitatzailerako bakoitzak egokitzat jotzen duen moduan egin ditzan administrazio-jakinazpenak (bere bitartekoak erabilia, posta-operadore unibertsalaren bitartez, etab.), betiere preskripzio teknikoen agirian eta legean aurreikusitako baldintza eta betekizunen arabera egiten dela bermatzen bada; [...].”

5. LDEA honek, txosten honen bitartez, KM/2011/002 espediente-zenbakia duen Administrazio-kontratuaren preskripzio teknikoen agiriko 4.2 klausula lehiari buruzko arauekin bateragarria den aztertuko du. Hona hemen aipatutako klausula, hitzez hitz:

“4.2.- Era berean, jakinarazpenek horiek jaso izana froga bidez ziurtatzeko ondorioa izan dezaten, abenduaren 3ko 1829/1999 Dekretuaren 39. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutakoaren arabera, adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du aipatutako bidalketak posta-zerbitzu unibertsala emateko ardura duen operadorearen onarpen-



unitateetan uzteko, adierazitako Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera tratamendua emateko ondoren”

II.- OINARRI JURIDIKOA ETA L.D.E.A.REN ESKU-HARTZEAREN IRISMENA

6. Oro har aipatu beharra dago *Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 25. artikulua* Lehiaren Batzorde Nazionalari (LBN) esleitzen dizkiola aholku emateko eskumenak, honakoa baitio: Lehiaren Batzorde Nazionala organo aholkuemailea izango da lehia defendatzearekin zerikusia duten arloetan. Zehazki esanda, ondorengo erakundeek eskatu ahal izango diote aholkua lehiaren arloan: ganbara legegileek, gobernua, ministerioetako departamenduek, autonomia-erkidegoek, toki-korporazioek, kolegio profesionalek, merkataritza-ganbarek, eta enpresari, kontsumitzaile nahiz erabiltzaileen elkarrekin.
7. Bestalde, *Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak izango dituen eginkizunak ezarri zituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak*¹ LDEAren Osoko Bilkurari esleitzen dizkio galderei erantzuteko eskumenak 6. artikuluan. Bertan azaldutakoaren arabera Auzitegiaren Osoko Bilkurari dagokio, xedapen horretan azaldutako beste eginkizun batzuek gain, *“Lehiaren defentsa dela-eta Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzako sailek, foru aldundiek, Euskal Autonomia Erkidegoko toki korporazioek, beste herri administrazio batzuek, eta Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritzako ganbarek, enpresa elkarrekin, sindikatuek edo kontsumitzaile eta erabiltzaile elkarrekin egiten dizkioten galderei erantzutea”* (6.h artikulua).
8. Araudi hori betez, LDEAk txostena egin behar du arestian aipatu den txosten eskaerari erantzuteko. Hala ere, aurretiaz adierazi behar da aholkuak emateko zereginen eremuan LDEAk ezin duela erabakirik hartu eragile ekonomikoek gauzatutako jardunbide zehatz bat LDLren 1. 2. eta 3. artikuluetan azaldutako xedapenen kontrako den adierazteko. Zehapen-prozeduraren baten xedea izango litzateke hori.

III.- LEGE GARAPEN ETA ARAU KONTROLERAKO ZUZENDARITZAK EGINDAKO TXOSTENEAN AZTERTUTAKO GERTAKARIEN AURREKARIAK.

¹ Martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuak aldatu zuen. EHAAREN 54. zenbakia (2008ko martxoaren 17koa).



9. LDEA honi egindako kotsultan administrazio-kontratu horri buruzko dokumentaziorik erantsi ez den arren, honako datu hauek atera dira Eusko Jaurlaritzaren Kontratzailearen Profiletik²:

I.- ZERBITZUEN KONTRATUAREN DATU OROKORRAK:

- 1.- Espediente-zk.: KM/2011/004
- 2.- Kontratuaren lizitazioaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan mezularitza eta paketeria zerbitzua ematea da.
- 3.- Adjudikatzeko ahala: Eusko Jaurlaritza.
- 4.- Kontratazio-organoa: Justizia eta Herri Administrazio Saila.
- 5.- Izapidetzea: arrunta.
- 6.- Prozedura: irekia.
- 7.- Kontratu-mota: Zerbitzuetakoa.
- 8.- Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua: 1.499.999,99 euro
- 9.- Egikaritze-epea: 2 urte, bi luzapen onartuz.
- 10.- Kontratatzen sailekapea: R taldea, 1 eta 9 azpitaldeak, D kategoria.
- 11.- Eskaintzak aurkezteko azken eguna: 2011ko otsailaren 18a.

II.- KONTRATUARI ERANTSITAKO DOKUMENTUAK:

- 1.- Administrazio-klausula orokorren agiria.
- 2.- Administrazio-klausula zehatzen agiria.
- 3.- Preskripzio teknikoaren agiria.

III.- LIZITAZIOAREN ARGITALPENA.

- 1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan posta-zerbitzuak emateko kontratuaren lizitazio-iragarkia 2010eko urriaren 25ean argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.
- 2.- 2010eko irailaren 22an bidali zen iragarki hori Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera, eta 2010eko abenduaren 24an argitaratu zen aldizkari horretan.

IV.- APLIKATU BEHARREKO LEGERIA:

10. Honakoa da azaldutako kasuari aplikatu beharreko erregulazioa:

² <http://www.contratacion.euskadi.net/w32-1081/eu/v79aWar/comunJSP/v79aCambioIdioma.do?idioma=eu>



- 1.-30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
- 2.-15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsari buruzkoa.
- 3.-24/1998 Legea, uztailaren 13koa, Posta-zerbitzu unibertsala eta posta-zerbitzuen liberalizazioa arautzen dituen.
- 4.-43/2010 Legea, abenduaren 30ekoa, Posta-zerbitzu unibertsala arautzen duena. (Lege honen xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetu egiten du 24/1998 Legea).
- 5.-30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 6.-1829/1999 Errege Dekretua, posta-zerbitzuak arautzen dituen araudia onesten duena, Posta-zerbitzu unibertsala eta posta-zerbitzuen liberalizazioa arautzen dituen 24/1998 Legean ezarritakoa garatuz.
- 7.-97/67/CE2 Zuzentaraua, Erkidegoko posta-zerbitzuen barne-merkatua garatzeko eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko baterako araei buruzkoa.
- 8.-2008/6/CE Zuzentaraua, 2008ko otsailaren 20koa, Erkidegoko posta-zerbitzuen barne-merkatua garatzeko eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko baterako araei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1997ko abenduaren 15eko Zuzentaraua aldatzen duena.

V.- KONTRATAZIO PUBLIKOA ETA LEHIA-ZUZENBIDEA.

11. Herri Administrazioak legezatasun-printzipioa bete behar du, Espainiako Konstituzioaren 9. eta 103. artikuluetan ezarritakoaren arabera, interes orokorrak asetzeko jarduna garatzen duen eremu guztietan.
12. Herri Administrazioak ondasun eta zerbitzuen eskatzaile gisa jarduten duenean merkatuan, jardun hori ez da askea, eta kontratu publikoei buruzko araudia bete behar du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legea, hain zuzen ere. Aipatutako legearen aplikazioa eremu subjektibo batera hedatzen da, eta sektore publiko esaten zaio eremu horri, lege horren 3. artikuluan definitutako kontzeptu juridikoa dela. Kontratuei buruzko araudiaren helburu nagusia interes orokorreko helburuak lortzean objektibotasun, gardentasun, publikotasun eta bazterkeriarik ezaren printzipioak betetzea da.
13. Konstituzio Auzitegiak 2003ko apirilaren 22ko epaian adierazi zuen administrazio-kontratazioaren alorreko oinarrizko araudiaren xede nagusia, interes orokorreko beste helburu batzuez gain, publikotasun, berdintasun,



lehia aske eta segurtasun juridikoaren bermeak ematea dela, herri-administrazio guztiek herritar guztiei trataera bera emango dietela bermatzeko.

14. Lehiari buruzko araudia, zalantzarik gabe, Herri Administrazioak eta herritar guztiek (Espainiako Konstituzioaren 9. artikulua) bete behar duten legezketasunaren barruan egon behar da, eta besteak beste Lehiaren Defentsari buruzko Legearen aginduen arabera egin behar du bere jarduna. Kontratazio publikoaren eremuan, araudi publikoak berak erreferentzia egiten die lehiaren defentsari lotutako printzipioei (aurreko paragrafoan aipatu diren printzipioak), baina gainera, kontratazio publikoak ekonomian duen garrantzia kontuan hartuta, beren-beregi aipatzen du lehiazuzenbidearen araudia. Hain zuzen ere, preskripzio teknikoen agiriari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko legearen 101. artikulua dio lizitatuak berdintasun-baldintzetan sartzeko aukera eman beharko dela, eta ezin izango dela justifikaziorik gabeko eragozpenik sortu kontratu publikoak lehiakideei zabaltzeko. Halaber, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen hogeita zazpigarren xedapen gehigarriak dio lehiaren defentsari buruzko legea haustea ekar lezakeen gertakaririk egonez gero, kontratazio-organismoek lehiaren defentsarako agintaritzei jakinarazi beharko dietela.
15. Jakin egin behar da sartzeko erraztasunak eman eta lehia laguntzen duen araubide juridikoa ezinbesteko baldintza dela gastu publiko eraginkorra egiteko. Gogoan izan merkatu lehiakor eta gardenetan jarduten duten herri-administrazioek merkeago eskura ditzaketela kalitate handiagoko ondasun eta zerbitzuak.
16. Azkenik, adierazi behar da kontratazio publikoaren eragin ekonomikoa ELGako herrialdeetan BPGd-ren % 15ekoa dela, ELGako Lehiaren Batzordeak egin zuen "Guidelines for Fighting Bid Rigging in Public Procurement" izeneko azterlanetik ondorioztatu denez.

VI.- POSTA-SEKTOREAREN ARAUBIDE JURIDIKOA: MONOPOLIOTIK SEKTOREAREN LIBERALIZAZIORA.

17. LDEA honi azaldutako kasuan, kontratazio-organismoak, Justizia eta Herri Administrazio Sailak, lizitazio-prozesua hasi du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eremuan mezularitza eta paketeria zerbitzua kontratatzeko. Hori dela eta, KM/2011/004 administrazio-kontratuaren preskripzio tekniko berezien agiria lehiari buruzko araudiaren arabera den egiaztatzearen, kontratazio-organismoak preskripzio tekniko berezien agiria onetsi zuenean zegoen araubide juridikoa zein zen jakin nahi da, bai eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean dagoena ere, horixe baita lizitatuak eskaintzak aurkezteko eta kontratua egikaritzeko egongo den denbora-tartea.



18. Jakinarazpen-zerbitzuak oro har, eta posta-zerbitzuak bereziki, oinarrizko elementua dira garapen ekonomikorako, ekonomia ekoizten duten gainerako sektoreak dinamizatzen baititu, eta era berean aberastasuna eta enplegua sortzen ditu zeharka, laguntza aktiboa emanez herrialdearen ekonomia eta gizarte mailako kohesioari. Posta-sektoreak aldaketa-prozesu handia bizi izan du. Bulkada handia izan zuen Erkidegoko posta-zerbitzuen barne-merkatua garatzeko baterako arauari buruzko 97/67/CE2 Zuzentaraua onetsi zenean, eta Erkidegoko posta-zerbitzuen barne-merkatua guztiz gauzatzeko helburua duen 2008/6/CE Zuzentaraua onestearekin amaitu da (Europar Batasuneko estatu kideek 2010eko abenduaren 31 baino lehen aplikatu behar izan dute euren legerian).
19. Espainiako estatuan, Posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko abenduaren 30eko 43/2010 Legearen bitartez aplikatu da 2008/6/CE Zuzentaraua bertako legerian. Lege hori aurtengo urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean, azken xedapenetatik zazpigarrenean ezarritakoaren arabera. Izan ere, bertan adierazi zen legea Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko zela indarrean, eta 2010eko abenduaren 31n argitaratu zen.
- 42/2010 Legeak, xedapen indargabetzaile bakarraren bitartez, indargabetu egin zuen Posta-zerbitzu unibertsala eta posta-zerbitzuen liberalizazioa arautzen dituen 24/1998 Legea. Hala eta guztiz ere, xedapen iragankor bakarrean adierazitakoari jarraituz, posta-zerbitzua emateko baldintzak eta horren finantziazio-araubidea aurreko araubidearen arabera eraenduko dira, Gobernuak posta-zerbitzu unibertsala emateko plana eta hori arautzen duen kontratua onetsi arte.
20. Oso garrantzitsua izan denez posta-zerbitzuen sektorearen erregulazioan, komeni da aipamen labur bat egitea indargabetuta dagoen legeari, hau da, Posta-zerbitzu unibertsala eta posta-zerbitzuen liberalizazioa arautzen dituen 24/1998 Legeari. Izan ere, inflexio-puntua izan zen sektorearen liberalizazioan eta, ondorioz, hautsi egin zuen 1960ko maiatzaren 19ko Posta Ordenantzan islatutako monopolio-ereduarekin (1998. urtera arte egon zen indarrean).
21. Posta-zerbitzuak, 24/1998 Legean adierazitakoaren arabera, zerbitzu unibertsalak ala zerbitzu ez unibertsalak izan daitezke. Lehenengoak zerbitzu publikoak dira eta, era berean, posta-zerbitzu unibertsala emateko agindua duen operadorearentzat erreserbatutako posta-zerbitzu unibertsalak, ala erreserbatu gabeko posta-zerbitzu unibertsalak izan daitezke. Erreserbatutako posta-zerbitzu unibertsala CORREOSek izan duen legezko monopolioa izan da. Posta-zerbitzuaren gainerako bi motak lehiara irekita daude.



Honako zerbitzu hauek daude erreserbatuta posta-zerbitzu unibertsala emateko agindua duen operadorearentzat, bakar-bakarrik: A) Igorpen-zerbitzua. B) Eskutitz eta posta-txartelen hiriarteko bidalketak, ziurtatuak izan zein ez, jaso, onartu, sailkatu, eman, tratatu, bideratu, garraiatu eta banatzea, betiere 50 gramo edo gutxiagoko pisua badute. C) Eskutitz eta posta-txartelak sartu eta irteteko mugaz haraindiko posta-zerbitzua. D) Herritarrek herri-administrazio-organoei egindako eskaera, idazki eta jakinarazpenak jasotzea, posta-zerbitzu gisa.

Posta-zerbitzu unibertsala emango dela bermatzeko, eskubide berezi eta bakarrekoak ematen zaizkio posta-zerbitzu unibertsala emateko agindua duen operadoreari, eta horien artean aipatzekoa da administrazio- eta epai-organoen jakinarazpenak emateko eskubidea, jaso izana frogatuz bidez ziurtatuz.

Gainerako operadoreek erreserbatu gabeko eremuan egin ahal izango dituzte horrelako jakinarazpenak, eta zuzenbide pribatuaren arauak eraenduko dituzte horien ondoreak.

22. Aipatu den 24/1998 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian Correos y Telégrafos Estatuko sozietatea izendatu zen posta-zerbitzu unibertsala emateko gaitutako operadore, eta sozietate horri bakarrik esleitu zaizkio arestian aipatutako zerbitzuak, eskubide berezi eta bakarrekoak eman zaizkiola.

23. Posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko 43/2010 Legea 2011ko urtarrilaren 1ean indarrean sartzearen bitartez, indargabetuta geratu zen Posta-zerbitzu unibertsala eta posta-zerbitzuen liberalizazioa arautzen dituen 24/1998 Legea.

Posta-zerbitzu unibertsala arautzen duen lege berriaren bitartez, Postari buruzko 2008/6/CE Zuzentaraua aplikatu da bertako legerian, Erkidegoko posta-zerbitzuen barne-merkatua guztiz gauzatzeko asmoz. Lege berriak beste urrats bat ematen du sektorea liberalizatzeko eta lehia askearen eremua bermatzeko sektorean.

Sistemaren ardatza posta-zerbitzu unibertsalaren bitartez eratzen da, eta zerbitzu publikoko betebeharren arabera agintzen zaio *Correos y Telégrafos S.A.* operadore publikoari. Bestalde, posta-zerbitzu unibertsalaren eremu materialean egon arren merkatu askearen baldintzan ematen diren zerbitzuak, beste operadore batzuek eman ahal izango dituzte, administrazio-baimen berezia badute. Azkenik, ohiko posta-zerbitzuak ez diren gainerako posta-zerbitzuak emateko, aitoren arduratsua baino ez dute behar izango posta-operadoreek.

24. 43/2010 lege berriari azaltzen den posta-zerbitzua liberalizatzeko filosofiaren ondorioz, zerotik hasi eta kendu egin beharko da izendatutako



operadorearentzat erreserbatutako jardueren eremua, bai eta aurreko araudiak operadore horrentzat erreserbatutako eskubide berezi eta bakarrekoak ere. Horrela bada, 43/2010 Legearen 37. artikuluari jarraituz, honako kategoria hauetan sailkatu dira posta-zerbitzuak: 1) Posta-zerbitzu unibertsalaren eremuko zerbitzuak, 2) Posta-zerbitzu unibertsalaren eremutik kanpoko zerbitzuak.

Gainera, sistemaren funtzionamendu-premisa gisa, funtzionamendurako oinarriko printzipio bat ezarri da lege horren 2. eta 37.1 artikuluetan, posta-zerbitzuak lehia askearen araubidean emango direla adierazi baita.

25. Hala ere, legeak bertan eskubide bereziak aitortzen zaizkio oraindik izendatutako operadoreari, esaterako 22.4 artikuluan ezarritakoa. Bertan adierazten da izendatutako operadorearen jardunak egiazkotasun eta froga presuntziora izango dituela administrazio- eta epai-organoen jakinarazpenak banatu, eman eta jasotzean edo ukatu edo eman ezin direnean, bitarteko fisiko zein telematikoez egin eta, hala ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean xedatutakoa aplikatu ahal izango zaiela jakinarazpenen kasuei. Alabaina, gainerako posta-operadoreek egindako jakinarazpenek zuzenbide erkidearen arauetan ezarritakoaren arabera izango dituzte ondorioak, eta administrazio-prozeduraren aipatutako legearen 59. artikuluan ezarritakoari jarraituz egingo dira.
26. Era berean, lege berrian adierazi den liberalizazio-dinamika moteldu egin da Correos y Telégrafos S.A. merkataritza-etxea izendatu delako izendatutako operadore 15 urteko eperako, lehenengo xedapen gehigarrian adierazitakoari jarraituz.

VII.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN EREMUAN POSTA-ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA ERAENDU BEHAR DUEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA.

27. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eremuan posta-zerbitzuak emateko kontratua eraendu behar duten preskripzio teknikoek agiria Posta-zerbitzu unibertsala eta posta-zerbitzuen liberalizazioa arautzen dituen uztailaren 13ko 24/1998 Legea indarrean zegoenean (gaur egun indargabetuta dago) onetsi zuen kontratazio-organismoak. Aipatutako kontratuaren preskripzio teknikoek agiriko lehenengo klausulak dio kontratua betetzeko posta-zerbitzuak ematean, Posta-zerbitzu unibertsala eta posta-zerbitzuen liberalizazioa arautzen dituen 24/1998 Legean xedatutakoa bete beharko dela.

28. Administrazio-kontratu hori gauzatzeko orduan, beste lege bat dago indarrean, posta-zerbitzu unibertsalari buruzko 43/2010 legea. Bada, lege



horrek kendu egin ditu erreserbatutako jarduerak eta izendatutako operadorearen eskubide berezi eta bakarrekoak, eta gehiago sakondu du sektorea liberalizatzeko eta lehia askea irekitzeko prozesuan.

29. Hala eta guztiz ere, aztertzen gabiltzan kasuan, Baldintza tekniko berezien agiriko 4.1 klausulak dio 24/1998 Legeak izendatutako operadorearentzat erreserbatutako posta-zerbitzuak zaindu beharko direla kontratuan, baina lege berria indarrean sartzearen ondorioz zerbitzu horiek kendu egin dira.

30. LDEA honek uste du beharrezkoa dela kontratazio-organoak sakon berrikustea kontratuaren preskripzio teknikoaren agiria eta administrazio klausula berezien agiria, posta-sektorea arautzen duen araudi berriari egokitzearren.

Gogoan izan behar da lege berriaren, hau da, *Posta-zerbitzu unibertsalari buruzko abenduaren 30eko 43/2010 Legearen 2. eta 37. artikuluek* diotela posta-zerbitzuak interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak direla, eta lehia askearen araubidean ematen direla. Gainera, *Sektore Publikoko Kontratuak buruzko 30/2007 Legearen 101. artikulua* arabera, kontratua emateko modua eraendu behar duten preskripzio teknikoek ezin dute justifikaziorik gabeko eragozpenik sortu kontratu publikoak lehiakideei zabaltzeko.

31. Kontratuaren preskripzio tekniko berezien agiriko 4.2 klausula lehiari buruzko araudiarekin bateragarria den jakiteko LDEA honetan sortu den alderdi bereziari dagokionez, LDEA honek berriro gogorarazi nahi du araudi berriak kendu egiten dituela izendatutako operadorearentzat erreserbatutako zerbitzu eta jarduerak, bai eta horri esleitutako eskubide berezi eta bakarrekoak ere.

32. Liberalizazio-prozesu horren ondorioz, eta merkatua posta-operadoreei eta, ondorioz, lehiakideei irekitzearen ondorioz, administrazio- eta epai-organoen jakinarazpenak egin ahal izango dituzte posta-zerbitzu unibertsala emateko baimen berezia duten posta-operadoreek eta horretarako izendatutako posta-operadoreak.

Gauzak horrela, eta 43/2010 Legearen 22. artikuluan xedatutakoari jarraituz, posta-operadoreek askatasunez eman ahal izango dute zerbitzu hori, zuzenean zein izendatutako posta-operadorearen bitartez, zein beste operadore batzuen bitartez.

33. Posta-zerbitzuak ematen dituztenen arteko jardunaren ezberdintasuna legeak posta-operadore ezberdinek egindako administrazio-jakinazpenen emandako ondore juridikoak dira. Alde batetik, izendatutako operadoreak egindako jakinarazpenak legez izango du egiazkotasun eta froga presuntzioa jakinarazpenak banatu, eman eta jasotzean edo ukatu edo eman ezin direnean. Hala ere, baimen berezia duten posta-operadoreek eginez gero administrazio- edo epai-organoen jakinarazpenak, zuzenbide



pribatuaren arauen araberako ondore juridikoak izango dituzte; beraz, ez dute egiazkotasun presuntziorik izango, eta zalantzan ipiniz gero, zuzenbide pribatuko froga-elementuen bitartez frogatu beharko dira.

Lehiaren Agintaritza honek uste du izendatutako operadoreari emandako eskubide berezi eta bakarrekoa dela, eta ez diola onik egiten posta-merkatuan lehia-baldintzak sortzeari. Horrek, gainera, *Correos y Telégrafos S.A.* merkataritza-etxea 15 urteko eperako izendatutako operadore izendatu izanarekin batera, geldiarazi egiten du merkaturia lehiari irekitzeko bidea.

34. Preskripzio tekniko berezien agiriko 4.2 artikulua ezarritakoaren arabera, administrazio-jakinazpenek horiek jaso izana frogatu bidez ziurtatzeko ondorioa izan dezaten, abenduaren 3ko 1829/1999 Dekretuaren 39. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutakoaren arabera, adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du aipatutako bidalketak posta-zerbitzu unibertsala emateko ardura duen operadorearen onarpen-unitateetan uzteko, adierazitako Errege Dekretuan ezarritakoaren araberako tratamendua emateko ondoren.

Baldintza-agiriko Gertakari eta zigorreko buruzko 7. klausulak dioenaren arabera, jakinarazpen bakoitzerako 100 euroko isuna ezarriko da, jakinarazpenak emateko *Correos y Telégrafos* posta-sarea erabiltzen ez bada.

Klausula horiek urratu egiten dute 43/2010 Legearen 22. artikulua, klausulek adierazitakoaren arabera izendatutako posta-zerbitzuaren bitartez egin behar dituztelako administrazio-jakinazpenak posta-operadore adjudikaziodunek, eragotzi eta zigortu egiten dutelako jakinarazpen horiek baimendutako posta-operadoreek euren bitartekoak erabilita, jakinarazpena egin arteko ekintza guztiak egin direla frogatu ahal izateko bidezko mekanismo juridikoak erabiliz, egitea.

Horrenbestez, baldintza tekniko berezien agiriko 4.2 eta 7. klausulek 43/2010 Legearen 22. artikulua urratzeaz gain, 43/2010 Legearen 2. eta 36. artikulua ere urratzen dituzte, lehia aserik gabe ematen delako posta-zerbitzua. Izan ere, eragotzi egiten da izendatutako operadorea ez den beste operadore batek bere kabuz egin ditzala horrelako jakinarazpenak, hirugarrenen aurrean egin direla egiaztatzeko aukera emango duten mekanismo juridikoak erabiliz.

35. Arestian aipatutakotik zuzenean ondoriozta daiteke Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legearen 101. artikulua urratu dela, 4.2 eta 7. artikuluek justifikaziorik gabeko eragozpenak sortzen dituztelako kontratu publikoa lehiakideei zabaltzeko.

36. Azkenik aipatu beharra dago adierazitako klausulek Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1.1.a artikulua ere urra lezaketela, lehia murrizten



dutelako posta-zerbitzuen merkatuan, eta jokabide hori ez dagoelako babestuta hori justifikatzen duen legeren batean (Lehiaren Defentsari buruzko legearen 4.1 artikulua).

Posta-zerbitzu hori ematean lehia murrizteak ez du inolako justifikaziorik, ez objektiboa, ez arrazoizkoa, ez proportzionatua, aplika daitekeen legeria bereziak aukera ematen dielako baimen berezia duten posta-operadoreei zerbitzu hori euren kabuz edo hirugarrenen bidez emateko, zuzenbide pribatuan adierazitako frogabideak erabili beharko dituztela jakinarazpen-egintza egin dutela justifikatzeko.

VIII.- ONDORIOAK:

1. Adierazitako guztiarekin bat etorrira, Administrazio klausula berezien agiria eta Preskripzio tekniko berezien agiria aldatzeko gomendatu nahi dio LDEA honek Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan mezularitza eta paketeria zerbitzua emateko KM 2011/04 administrazio-kontratuaren kontratazio-organoari, posta-sektorea arautzen duen araudi berriari egokitzeko, hau da, *Posta-zerbitzu unibertsalari buruzko abenduaren 30eko 42/2010 Legeari*.
2. Hain zuzen ere, aipatutako kontratuaren Preskripzio tekniko berezien agiriko 4.2 eta 7. klausulei dagokienez, LDEA honek uste du gaur egun idatzita dauden moduan aurre egiten diotela *Posta-zerbitzu unibertsalari buruzko abenduaren 30eko 42/2010 Legearen 2., 22. eta 37. artikuluei*, posta-operadore adjudikaziodunek, egiazkotasun presuntzioa eskuratzeko, izendatutako posta-operadorearen bitartez egin behar dituztelako administrazio-jakinarazpenak. Beraz, murrizketa hori kendu egin behar da posta-zerbitzua emateko baldintzetan.
3. Azkenik aipatu beharra dago adierazitako klausulek Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1.1.a artikulua ere urra lezaketela, lehia murrizten dutelako posta-zerbitzuen merkatuan, eta jokabide hori ez dagoelako babestuta hori justifikatzen duen legeren batean (Lehiaren Defentsari buruzko legearen 4.1 artikulua).

Posta-zerbitzu hori ematean lehia murrizteak ez du inolako justifikaziorik, ez objektiboa, ez arrazoizkoa, ez proportzionatua, aplika daitekeen legeria bereziak aukera ematen dielako baimen berezia duten posta-operadoreei zerbitzu hori euren kabuz edo hirugarrenen bidez emateko, zuzenbide pribatuan adierazitako frogabideak erabili beharko dituztela jakinarazpen-egintza egin dutela justifikatzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko otsailaren 24an.



LEHENDAKARIA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

LEHENDAKARIORDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

KIDEA
M^a PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI